



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

GARAPEN JASANGARRIA SUSTATZEKO EKINTZAK EGITEN
DITUZTEN TOKI-ERAKUNDEEI ZUZENDUTA DAUDEN
DIRULAGUNTZEN AGINDUA AURKEZTEKO JARDUNALDIA

2025/09/24







UDALERRIEN ZERBITZURA DAGOEN PROGRAMA BERMATUA

➤ 2007tik 70 milioi baino gehiago inbertitu dira

Jarduera-ildo bakoitzeko metatutako diru kopurua




Diru kopurua, lerroko eta urteko





- Programa erreferente egonkor bihurtu da 2007tik:
 - 3.138 eskaera aurkeztu dira 2007-2023 bitartean
 - 2.376 proiektu diruz lagundu dira 2007-2023 bitartean

Diruz lagundutako proiektu-kopurua, lerroko eta urteko





2025eko deialdia

2025eko irailaren 9ko agindua, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei zuzendutako diru-laguntzak emateko oinarriak ezarri eta deialdia egiten duena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

2025eko deialdiaren berriak





Diru-laguntzak jaso dezaketen lerroak:

- **Lurzorua berreskuratzea** (lehen kutsatutako lurzoruak eta lurzorua babestea).
- **Aldaketa-Klimatikoa**
- **Natura ondarea**
- **Hondakinen kudeaketa eta balorizazioa** (lehen Ekonomia Zirkularra)
- **Lurzoruaren tokiko kudeaketa** (lehen Tokiko Ekoberrikuntza)
- **Jasangarritasunerako Hezkuntza**
- **Asteklima 2025**



EGITURA

- **Baldintzak:**
 - Eremu subjeliboa
 - Lerro bakoitzeko espezifikoak
- **Onuradun izateko debekuak:** erantzukizunpeko adierazpena
- **Esleitzeko irizpideak / Emateko prozedura**
- **Justifikazioa**
 - GLS, NAT, KLI, SUE, RES
 - ASTEKLI, EDU
- **Dirua itzultzeko arrazoiak**



EDUKIA

- **Eskaerak aurkezteko epea: 2025/09/24 – 2025/10/24**
- **Aurrekontua: 2.619.000 €**
 - **Lurzorua berreskuratzea:** 519.000 €
 - **Aldaketa-Klimatikoa:** 490.000 €
 - **Natura ondarea:** 620.000 €
 - **Hondakinen kudeaketa eta balorizazioa:** 450.000 €
 - **Lurzoruaren tokiko kudeaketa:** 190.000 €
 - **Jasangarritasunerako hezkuntza:** 200.000 €
 - **Asteklima 2025:** 150.000 €
 - Mugak ehunekoetan, biztanleria eta lerroaren arabera



EDUKIA

- **Diruz lagundu daitezkeen gastuak:** 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa
- **Diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak (11.4 oinarri arautzailea):**
 - BEZa
 - Plantillako langileen gastuak
 - Ingurumen hobekuntzarik ekartzen ez duten gastuak
 - ...
- **Diruz lagundutako jarduera hirugarrenekin kontratatzea**
- **Eskaeren aurkezpenaren muga:** lerro bakoitzeko eskaera bakarra
- **Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa**
 - Datuen inprimaki normalizatua
 - Proiektuaren memoria
 - Beharrezko baimenak
 - 16.9 oinarrian akatsa
- **Onuradun diren erakundeen betebeharrak (25. oinarri arautzailea)**
 - Gauzatzeko baldintzak
 - Diru-laguntzaren itzulketa
- **Baldintza pleguak**



EDUKIA

Justifikazioa eta gauzatzea

- GLS, SUE, KLI, RES: **epea 2027/10/31**
- ASTEKLIMA
 - **Euskadiko Klima eta Energiaren Astea 2025eko gauzatzea**
 - **Deialdiaren ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean justifikatu beharra**
- EDU
 - **Gauzatzea 2026/07/15**
 - **Justifikazioa 2026/09/16**
- NAT 5.oinarriaren 1.atalaren a) eta e) arteko jarduketak
 - **Gauzatzea eta justifikazioa 31/12/2027**



Gauzatze partziala

- 26. Oinarri arautzailea
- Diru-laguntzaren itzulketak

Luzapenak

- Luzapen bakarra
- Epea

Eskaerak

<http://www.euskadi.eus/medio-ambiente>



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

Eskaerak egiteko eta zuzenketak saihesteko gakoak



Ohiko erroreak

Akats saihesgarriek eragiten dituzte zuzenketa gehienak:

- Sinadura elektronikoaren falta
- Dokumentu osatugabeak
- Aurrekontuko akatsak
- Formularioen arteko inkoherentziak



Nahitaezko dokumentazioa

OROKORRAK LERRO GUZTIEI

- Oinarrizko datuen formularioa, jarduera-ildoaren arabera
- Erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina)
- Proiektu teknikoa/memoria
- Aurrekontuaren formularioa (ondo adierazi aurrekontu horretatik guztitik zenbat egozten zaion deialdi honi)
- Titulartasunari eta baimenei buruzko dokumentazioa

ESPECÍFICAS POR LÍNEAS

- SUE, KLI, NAT eta GLS lerroak:
 - Kokapen-formularioa (II. eranskina)
- KLI lerroa:
 - Iraunkortasun-konpromisoa (webgunean eskuragarri)
- NAT lerroa (lursaila erosi bada):
 - Lurraren tasazio ofizialeko txostena



Eskaera on bat deialdia ondo ulertzetik hasten da

- Definitu ondo **zer, nola** eta **zertarako**
- **Gakoak**: helburu argiak, aukeratutako ildoarekin bat etortzea, ingurumen-inpaktua, bideragarritasun teknikoa
- **Ez utzi ezer kanpoan**: formularioak, memoria teknikoa, erantzukizunpeko adierazpena, baimenak, etab.
- **Aurrekontu** errealista, zehatza eta mugetara egokitua
- Deialdi honetan, **2025ean hasitako jarduerak** baino ez dira sartuko.



LURZORUA BERRESKURATZEA

Irismena

- **Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzoruak, eraikinak eta industria-instalazioak ikertzeko ekintzak** (Ingurumen Sailburuordetzaren eskakizunetatik eratorritakoak barne).
- **Kutsatutako lurzoruak berreskuratzeko ekintzak**, industria-jarduerak izan dituzten lurretan nahiz kontrolik gabeko hondakin-biltegi zaharretan egindakoak (betiere lehengoratzea aurretiazko ikerketa-fasea amaitu ondoren hasten bada).
- **Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten eraikin eta instalazio industrialen ingurumena lehengoratzeko ekintzak** (Kanpoan uzten dira lurzoria kutsatzen duten industria-jarduerekin zerikusirik ez duten eraikuntza-hondakinak eraistea eta maneiatzea).
- **Ingurumenaren jarraipena egiteko ekintzak**, Ingurumen Sailburuordetzak sustatutako proiektuetan sartutakoak barne; gehienez ere, 5 kontrol- eta jarraipen-kanpaina, lurzoruaren berreskurapenaren edo lurzoruaren kalitatearen deklarazioa igorri ondorengoak.
- **Lurzoruaren kalitatearen adierazpena lortzeko** prozeduraren esparruan ingurumen-organismoak eskatutako beste **ekintza** batzuk.
- **Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren, lurzoruaren egokitasunari buruzko adierazpenaren** edo lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten **lurzoruen inbentarioaren aldaketen** salbuespena izapidetzeko txostenak idaztea.



LURZORUA BERRESKURATZEA

Kontuan hartu beharrekoa:

- **Titulartasun publiko egiaztatua** (edo baliozko lagapena).
- Ingurunearen **ingurumen-berreskurapena** sartzea.
- Lurzoruen lerroan dirulaguntza bat jasotzen denean, prozedura bat hasi beharko da ingurumen-organoaren **INGURUNET** plataforma elektronikoan, eta aurkezten den dokumentazioan argi eta garbi adierazi beharko da **XX-SUE-2025 espediente-zenbakia**.
- Proiektua, **gehienez, 2 urtetan** burutu behar da.
- **Beharrezko baimen guztiek emanda** egon behar dute.


ALDAKETA-KLIMATIKOA

 **Irismena**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD




ALDAKETA-KLIMATIKOA

 **Irismena**



ALDAKETA-KLIMATIKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD



ALDAKETA-KLIMATIKOA

Kontuan hartu beharrekoa:

- **Mugikortasunean:** lotura-proiektuak (bidegorriak, aldirietako aparkalekuak), **egokitze-irizpideekin** (lurzoru iragazkorrak, zuhaitzak).
- **Xurgapenean: espezie autoktonoekin** egindako baso-sartzeak/baso-berritzeak eta 30 urteko iraupen-plana.
- **Egokitzapenean: NOK lehenetsi**–naturan oinarritutako irtenbideak (teilatu berdeak, drainatze jasagarria, hiri-berredizioa).
- **Azpiegiturek materialen beharra** izanez gero, eraikuntza materialen gutxienez **%40** birziklatuak izango dira. Obra-unitateko eta eraikuntza osoko kantitateak kalkulatzeko, Eraikuntzako material birziklatuak erabiltzeko gidak ematen duen tresna erabili beharko da.
- **Gastu neurrigabetzat** hartuko dira **aurrekontu orokorraren %30 gainditzen duten kanpo-laguntzako eta ikasketetako gastuak**.
- Udaletako edo eskualdeetako klima- eta energia-planak egitean:
 - Planeko ekintzak epe laburrera edo ertainera zehazten badira ere, horiek egiteko epe luzerako klima-egoera bat kontuan hartu beharko da (**gutxienez 20 urte**).
 - Egokitzapen-atalean, udalerrirako berariazko klima-arriskuaren azterketa batean oinarritu beharko dira, edo, bestela, Ihobek egindako «Euskal udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa» delakoan, eta **modu parte-hartzailean garatu beharko dira**.
- **Ez dira diruz lagunduko inpaktu txikiko ekintzak** (adib.: bizikleten aparkaleku soilak)

NATURA ONDAREA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

Irismena

- a) **Batasunaren edo eskualdearen interesekoak diren habitat naturalak kontserbatzeko** egiten diren leheneratze-, hobetze- edo kudeatze-ekintzak, flora exotiko inbaditzailearen kontrola barne, habitat naturala berreskuratzea sustatzeko jarduketekin osatzen bada.
- b) Batasunaren edo eskualdearen mailan **mehatxatutako flora eta fauna basatiko espezieak babesteko eta kontserbatzeko proiektuak.**
- c) **Lurraldearen konektagarritasun ekologikoan eta azpiegitura berdearen sustapenean** zuzenean laguntzen duten jarduketak, hala nola tokiko biodibertsitatearen intereseko guneen arteko konexioa sustatzea edo heskaiak sortzea.
- d) **Ingurumen-aldetik degradatuta dauden eremuak berreskuratze**ko jarduketak, biodibertsitatea sustatzeko.
- e) **Interes Geologikoko Lekuak babesteko edo kontserbatzeko** jarduketak, elementu hauetan identifikatuta daudenei lehentasuna emanez: Euskal Autonomia Erkidegoko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioa, Geoparkeko inbentarioa eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren inbentarioa, lurralde-plan partzialak, hiri antolamenduko plan orokorrak edo kultura-intereseko ondasunak (kultura-intereseko interes geologikoko lekuak, esaterako, aztarnategi paleontologiko zenbait).
- f) **Ibaiertzak eta ibilguak garbitzeko** jarduketak; betiere, jarduketa horiek toki-erakunde eskatzailearen eta Ura-Uraren Euskal Agentziaren artean sinatutako lankidetzeta-protokoloen esparruan egiten badira. Protokolo horiek biodibertsitatea kontserbatzeko eta babesteko nahitaez bete beharreko zenbait eskakizun bilduko dituzte.



NATURA ONDAREA

Kontuan hartu beharrekoa:

- **Habitat mehatxatuenak lehenestea** (ibaiertzeko basoak, bertakoak, padurak, hezeguneak, habitat hidroturbosoak).
- “**Arriskuan**” dauden edo “**kalteberak**” diren espezieak dituzten ekintzak, Euskal Katalogoaren arabera.
- a) eta e) paragrafoetan ezarritako jarduketak gauzatzean, jarduketa horiek burutzeko beharrezkoak diren **lurren erosketa diruz lagundu ahal izango da**. Lurren erosketa finantzatzeko emandako dirulaguntzak ez du inolaz ere gaitutuko lurraren tasazio-balioaren %40a. Inguruabar hori lurraren tasazio ofizialaren dagokion txostenaren bidez egiaztatuko da.
- **Komunikazio- eta sentsibilizazio-jarduera osagarriak diruz lagundu ahal izango dira**, herritarren kontzientzia eta ezagutza handitzeko helburua dutenak landutako arazoari buruz. Jarduera mota horietarako bideratutako zenbatekoak ez du gaitutuko emandako dirulaguntzaren %5a.
- **Neurrigabeko gastutzat** hartuko dira **laguntza teknikoari** (proiektuaren definizioa, jarraipena eta kudeaketa) **eta azterlanei esleitutako gastuak, baldin eta proiektuaren aurrekontuaren %15a gaitutzen badute**.

HONDAKINEN KUDEAKETA ETA BALORIZAZIOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

Irismena

- a) Sortzaile handien jardueraren ondorioz sortutako **materia organikoa** (merkataritzak, hezkuntza-zentroak, eta abar) **biologikoki tratatzeko bilketa selektiboko sistemak**, edo ehunak bilduko dituzten bilketa selektiboko sistemak, edo etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak.
- b) **Hondakinak modu selektiboan bildu gabe sortzea prebenitzen** lagunduko duten sistemak ezartzea, erabiltzailearen identifikazioaren bidez, hondakin arruntaren frakzioaren eta bio-hondakinaren frakzioaren bilketan.
- c) Instalazio berrien **bideragarritasun-azterketak eta** konpostaje komunitarioko **instalazioak araudi berrietara egokitzeko** jarduketak.
- d) **Ostalaritza eta merkataritza** sektoreetan, haien bezeroetan edo eraikin edo jarduera publikoetan **ontzien kontsumoa murrizten edo ontzi-hondakinak sortzea prebenitzen** laguntzen duten neurriak.
- e) Tokiko titulartasuneko konpostaje komunitarioko instalazio eta jardueren ondorioz sortutako **konpostaren kontrol analitikoak**.
- f) **Amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda egitea, eta** horien **kentzea planifikatzen duen egutegi** bat barne hartzea, Eusko Jaurlaritzak ezarritako metodologia eta jarraibideen arabera.
- g) **Herritarrei egiturazko zuntz-zementua** (lorontziak, teilatupeak, etab.) **behar bezala kudeatzen lagunduko dieten ekintzak diseinatzea edo abian jartzea**, isurketa kontrolik gabeak edo kudeaketa desegokiak saihesteko.
- h) Tokiko erakundearen eskumeneko egiturazko **amiantoa kentzeko eta kudeatzeko kostuak**.
- i) **Aurretiatzko azterketak, tresnak diseinatzea edo bilketa-sistemak abian jartzea** sortzaile handietan edo hiri-eremuetara pareka daitezkeen industria-poligonoetan, **bilketa-maila altua bermatzeko** eta, horrela, araudiak ezartzen dituen bilketa selektibo eta birziklatze-helburuak betetzeko.
- j) **Itsasoan edo kostaldeko inguruneetan, ibai-ibilguetan eta haien eragin-eremuetan, edo ingurune naturaletan hondakinak** (batez ere plastikoak) **biltzeko** jarduketak, lehentasunez berrerabilpena edo birziklapena lehenetsiz.
- k) **Udal-eraikinen eraispen selektiboko jarduketak**, behar denean beira, igeltsua, isolatzaile-materialak eta fresaketak modu selektiboan bereiziko direnak.
- l) Indusketa murriztuz edo indusketa *in situ* balorizatuz **hondeatutako materialen mugimenduak minimizatzeko azterlanak**.
- m) **Hondeatutako materialak prebenitzea edo berrerabiltzea** dakarten neurriak ezartzea.
- n) Lurzoruaren baliabideari eragiten dioten **edozein mehatxuren ondorioz hondatutako lurzoruak berreskuratzeko jarduketak**, lehentasunez urbanizaezina den lurzoruan.



HONDAKINEN KUDEAKETA ETA BALORIZAZIOA

Kontuan hartu beharrekoa:

- Lortutako **konpostaren analisiak eta kontrolak** 2019ko ekainaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1009 (EB) Erregelamenduan aipatzen diren arau harmonizatuen arabera egingo dira.
- **Amiantoa:** Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko Ekonomia zirkularrerako apirilaren 7ko 7/2022 Legea:
 - “Udalek amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen **errola bat** egingo dute, amiantoa **kentzea planifikatuko duen egutegi bat** barne”.
 - Nolanahi ere, **arrisku handieneko instalazio eta kokaleku publikoek 2028rako kudeatuta** egon beharko dute”.
- **Amiantoaren kentze lanak** amiantoaren Arriskuagatik Enpresen Erregistroan inskribatutako enpresen bidez, eta hurbiltasun-irizpideak kontuan hartuta.
- **Eraispen lanek gutxienez materialaren % 80 balorizatu dutela egiaztatu** beharko dute, Ihoberen [EEH-Aurrezten](#) tresnaren bidez eta dagozkion agirien bidez.
- **Derrigorrezko sentsibilizazio kanpainak**, amiantoko proiektuetan izan ezik.
- Sentsibilizazio-gastuak: **gehienez** aurrekontuaren **%20a**.

LURZORUAREN TOKIKO KUDEAKETA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

Irismena

- a) «**Lurzorua okupatzeko hierarkia**» ezartzen laguntzen duten proiektuak.
- b) **Lurzoru urbanizaezinetan balio handiko lurzoruak babesteko** (nekazaritzaren edo naturaren ikuspegitik) edo zenbait fenomenok (kutsadurak edo higadurak, esate baterako) kaltetu ditzaketen beste baliabide batzuk babesteko tresnak garatzera eta horien gaineko ekintzara bideratutako **azterketa edo analisia**.
- c) **Kokaleku artifizializatu hutsen inbentarioak** eta hirigintza tresnetan edo beste jarduera mota batzuetan kontuan hartzeko planak eta jarduketa neurriak diseinatzea, kokapen horiek berrerabiltzeari lehentasuna emateko lurzoru birjinen aurretik.
- d) **Lurzoruaren osasunari buruzko udal-diagnostikoak**, oro har, edo lurzoruari eragiten dioten mehatxuetako edozeini buruzkoak (bereziki higadura, luiziak, etab.), bide orrien diseinua eta tokiko jasangarritasun-politiketan integratzen diren udalen ekintza-planak barne.
- e) **Tokian-tokian aukerako espazioak indartzea**, lurzoruaren babesa sustatzen duten proiektu eraldatzaileak garatzeko jarduerak, zeinek, gainera, herritarrengan eragina duten gune degradatuak berreskuratzen dituzten, hirietan eta hiri-inguruetan azpiegitura berdea eta urdina sustatzen duten, ekintza klimatikoa sustatzen duten, biodibertsitatearekin bateragarriak diren edo, zeharkako ikuspegi batekin, hobetzera bideratuta dauden ingurumen-arloko edozein gai kontuan hartzen dituzten.
- f) **Lurzoru artifizializatu hutsak** edo horietan modu iraunkorrean edo aldi baterako erabil daitezkeen instalazioak egokitzeko ekintzak, ingurumenari dagokionez.
- g) **Betegarrien baimenak eta kudeaketa hobetzeko ekintzak**, jasangarritasun irizpideak aplikatzen direla bermatzeko eta erabilerak ezartzea sustatzeko (adibidez, inbentario lanak, betegarriak langile kualifikatuek kontrolatzea, etab.).

LURZORUAREN TOKIKO KUDEAKETA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

Kontuan hartu beharrekoa:

- **Lurzoruaren okupazio-hierarkiari lehentasuna** ematea (berrerabiltzea, berria okupatzearen ordeztu).
- Kokaleku artifizializatu hutsen inbentarioak egitean, oinarriko informazio gisa I hobek egindako Euskal Autonomia Erkidegoko eskalan **hutsik dauden lurzoruen aurretiako inbentarioa** erabili ahal izango da, baita hori egiteko erabilitako metodologia ere.
- **Lurzoruaren osasunari buruzko udal-diagnostikoak eta** ibilbide-orrien eta udal-ekintzako **planen** diseinua **lankidetzan parte hartuz eta sensibilizazio-jarduerak garatuz egin behar dira.**
- **Klima-aldaketara egokitzeko proiektuetan**, kontuan hartu beharko da:
 - «EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa» azterketaren ondoriozko inpaktu-kateen lehenespena eta azterketaren ondoriozko udal-fitxak edo udalerrian lehenesteko egindako diagnostiko propioak.
 - Klima-aldagaien bilakaerari buruzko datuak (tenperatura, prezipitazioa, konbinatuak) eskatzen dituzten proiektuek kontuan hartu beharko dituzte Euskadirako klima-aldaketari buruz dauden datuak.
- Proiektuak **hirigune publikoaren plangintzan, garapenean edo kudeaketan jardutea eskatzen badu**, erakunde onuradunek osasunaren gaineko efektuaren analisi bat egin eta aurkeztu beharko dute proiektuaren diseinu fasean, Tokiko hirigintza ekimenek osasunean duten efektua aztertzeko tresnaren aplikazioan oinarrituta. Tresna Udalsarea 21eko 17. koadernoan jasota dago, («Osasuna eta hiri garapen jasangarria»).
- **Soluzio naturalei buruzko erakustaldi proiektuen kasuan**, proiektuek «Irtenbide naturalak Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketara egokitzeko. Horiek identifikatzeko eta mapatzeko gida metodologikoa» lanan proposatutako metodologia aplikatu beharko dute.
- **Azpiegiturek materialen beharra** izanez gero, eraikuntza materialen gutxienez **%40** birziklatuak izango dira. Obra-unitateko eta eraikuntza osoko kantitateak kalkulatzeko, Eraikuntzako material birziklatuak erabiltzeko gidak ematen duen tresna erabili beharko da.
- **Berritzaileak** eta **erakusleak** diren proiektuei emango zaie dirulaguntza, eta **gauzatzeak** direnei emango zaie lehentasuna.



JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA

Kontuan hartu beharrekoa:

- **Tokiko eta Eskolako Agenda 2030en arteko** koordinazioa.
- Derrigorrezkoa: **gutxienez eskola arteko foro 1 + udal foro 1** ikasturteko.
- Jardunbide egokiekin, katalogoekin, erakusketekin edo jardunaldiekin osatzea.
- Burutzeko epea: **2025eko uztaila – 2026ko uztaila**.
- Oinarrian azaldutako jardueretara mugatutako kostu subentzionagarriak.



ASTEKLIMA 2025

Kontuan hartu beharrekoa:

- **Herritar guztiei** zuzendutako jarduerak.
- Askotariko tipologiak: tailerrak, antzerkia, zinema, lehiaketak, martxak.
- **Herritarren erantzunkidetasuna** sustatzen duten proposamen sortzaileak.
- Jarduerak Aste klima 2025 (urriak 17-26) **data ofizialetan** egin behar dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

GALDERETARAKO KONTAKTUA

Helbide elektronikoa: daz_sas@ihobe.eus

Telefonoa: 946620220



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

www.euskadi.eus

